


# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Saltzen dugun produktuak arrakasta handia izan dezake, telebistek eta mandoek garrantzia handia dutelako mundu osoan, haren sorreratik oso produktu famatua bihurtu delako mundu mailan eta denbora pasa ahala, eta telebistak geroz eta hobekuntza handiagoak egin ahala, geroz eta famatuagoak dira. Mundu osoko populazioaren %80ak dagoeneko etxean telebista bat edo gehiago dauka; logeletan, sukaldean, egongeletan.. Bestalde, telebista kontrolatu ahal izateko mando bat behar da, eta hori da guk eskaintzen dugun produktua, hain famatuak diren telebista horiek kontrolatu ahal izateko aukera ematen dugu gure proiektuari esker. Gure produktu hau, Samsungi salduko diogu eksklusiboki eta Samsungek gure mandoak beraien telebistekin batera nahi dituen herrialdeetan salduko ditu eta ondoren Samsungek gure mandoak bere dendetan eta web orrialdean eskainiko ditu. Enpresa honekin batera lan egitea erabaki dugu, telebista saltzaile inportantea delako, eta modu honetan etekin handiagoa aterako dugulako. Bi enpresei emango dizkigu irabaziak. Pastikoak egingo dizkigun enpresa, Plasnor izango da. Plasnor Legazpiko enpresa bat da, esan bezela, plastikoak egiten dituena.

Gure mandoa mundu guztiak erosi arren, gure azken bezeroa Samsung izango da, nahiz eta Samsungen bezeroak pertsona dirudunak izan, honetan berriak garenez, aproposagoa iruditu zaigulako Samsungek bezero harremanak kontrolatu edo egitea.



Beste alde batetik, guk mandoa saldu aurretik egin egin beharko dugu. Horretarako, lokal bat beharko dugu proiektua aurrera eramateko. Hainbat lokal mota desberdinekin kontaktuan jarri eta gero, prezio baxuan utziko diguten bat aurkitu dugu. Hala nola, hilabetean 30€-ren trukean lokala utziko digute argi-endarra, telefono linea eta wifiarekin. Hau dena lehenengo 3 urteetan izango da, gastu handirik ez izateko hasieran, inbertsio handiak egin behar izango baiditugu beste gauza batzuekin. Hiru urteak pasa eta gero, dena ondo badoa eta irabazi handiak edukiko bagenitu, beste lokal mota bat ordaintzeko adina diru izango genuke, eta hau ez litzateke arazo bat izango.

Materialak ekarriko dizkiguten enpresek garraioa doan egingo digute, erosiko dugun material kantitatea handia delako, eta haiek irabazi handiak edukiko dituztelako berdin-berdin.

Publizitateari dagokionez, Samsungen laguntza edukiko dugu. 2.500€ euro emango dizkiogu hilabetero, hurak hartu dezan ardura, jada fama eta erraztasun gehiago duelako.

Erosterako orduan, Samsungen web orrian kokatuko gara. Bere sekzio jakin batean gure mandoa jarriko dugu, bezeroek mandoa bakarrik erosi nahi badute, aukera eduki ahal izateko. Bertan, arazo edo dudaren bat edukiz gero, gure enpresara deitu ahal izango dute.

Gobernuak lehenengo hilabetean diru-laguntza bat emango digu, gure mandua puskatutakoan edo bota nahi duzunean, birziklatu ahal izango delako. 4.000€ emango dizkigu, eta gainera, gure enpresa eta Samsungek fama hobea izango dugu, natura zaintzen dugulako.

